

Harreman estua sortu da azken urteetan, euskal eta japoniar kulturen artean

Ipuin kontalaria, goitik behera beltzez jantzita, neska-mutilen aurrean azaldu da. Ikusle gazteek begiak iltzatuak dituzte agertoki txikian. Txotxongiloentzat propio egindako agertokia dirudi: bi ate zabalik, eta, erdian, kolore biziko marrazkia. Bertan ez da panpinarik azalduko, ordea. Istorioa marrazkietan dago. Marrazkietan, eta ipuin kontalariaren hitz zein soinuetan. Kamishibai bat kontatzen ari da ipuin kontalaria (kamishibai hitzak "papereko antzerkigintza" esan nahi du japonieraz). Antzezlea hasia da istorioa azaltzen, eta aurrera egin ahala, agertoki txikiko marrazkia aldatzen du. Euskaraz ari da, japoniar tradizioa ipuina kontatzen. Eta haurrak, adi-adi. Kamishibaiak iraun duen bitartean, ez dute zirkinik ere egin. Barre algara solteek soilik urratzen dute aretoko isiltasuna.

Ipuin kontalariak Josu Jimenez Maia du izena, eta kamishibaian aditua izateaz gainera, irakaslea eta idazlea ere bada. "Ipuingintza mota hau ezagutu nuenetik argi izan nuen sekulako potentzialtasuna zuela, aukera handiak eskaintzen zituela, batez ere, hizkuntzen irakaskuntzarako», azaldu digu. Ingeles eta euskara irakaslea da Jimenez, eta bere alorrean, kamishibaia "oso aproposa» izan zitekeela iruditu zitzaion, "batez ere A ereduko ikasleentzat». Hau da, gaztelaniazko hezkuntza jaso baina euskara irakasgai bezala daukaten horientzat. "Eredu horretako irakasle izana naiz, eta ikusi dut ikasle horiek oso urrun sentitzen dituztela euskara eta euskal kultura. Kamishibaiari esker, ordea, ahozko kontakizunean ulertzen ez dutena, marrazkietan ikus dezakete, eta beraz, modu atseginean ikas dezakete. Nik, adibidez, 'lekiok' bezalako aditzak, esaera zaharrak edota onomatopeia ezezagunak sartu izan ditut nire kontakizunetan, eta den-denek ulertu dituzte, bakoitza bere testuinguruan kokatua dagoelako, modu oso naturalean».

Reiko Furunoren eskutik izan zuen Jimenezek kamishibaiaren berri. Furunok paper garrantzitsua bete du orain arte Euskal Herriaren eta Japoniaren artean zubiak eraikitzen. Duela hamarkada bete etorri zen Iruñera bizitzera, eta harreman oso estua garatu zuen Yamaguchi liburutegiko arduradunekin. Handik gutxira, kamishibaiak kontatzen hasi zen bertoko haurrentzat. Emanaldi horietako batean ezagutu zuen Josu Jimenez, eta ipuin japoniarrak gaztelaniara eta euskarara itzultzeko aukerak aztertzen hasi ziren biak ala biak: "Hasiera batean, Reiko Furuno ez zen kamishibai ipuinetan aditua, baina guk erakutsitako interesa ikusita, lan handia egin zuen ipuin berriak biltzen», azaldu du idazle nafarrak.

Furunori esker, IKAJA Nazioarteko Kamishibai Elkarte Japoniarrarekin kontaktuan jarri ziren Yamaguchi liburutegiko kideak. Fruitu oparoak emanen zituen harreman sortu berriak: 2006an, IKAJako kide Etsuko Nozaka itzultzailea Iruñean bertan izan zen, kamishibai ikastaro bat ematen, eta harekin elkarlanean, "Kamishibaia Antzetzeko Gida" euskarara eta gaztelaniara itzuli zuen Josu Jimenezek, EIBZ Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroaren eskutik.

Ordutik Jimenezek 50 kamishibai baino gehiago euskaratu ditu, eta hainbat ikastaro eskaini ditu Euskal Herri osoko ikastetxe, kultur etxe eta bestelako zentroetan. Mintegi horietatik kamishibai-kontalari bikainak atera dira: Aitor Txarterina, Ixabel Millet... eta dagoeneko, hamaika saio egin dituzte, Japoniako paper-antzerkia gure herri eta hirietara zabalduz, eta haurrak liluratuz: "Kamishibaiak magia berezia du. Japoniarrek 'kiokan' deitzen diote. Ikusleekin hartu-eman eta eragin xarmangarria sortzen du. Oso bitxia da, gaur egun, PlayStation, Wii edota sare sozialen garaian, kamishibaiak badu tokiak. Izan ere, teknika japoniar honek, bere xumetasunean, harreman zuzena sortzen du ikusleekin. Naturala izan arren, multimedia ere bada, kontakizuna, marrazkiak eta soinuak uztartzen dituelako, eta horregatik guztiarengatik lortzen du neska-mutilak katigatzea, lotuta mantentzea».

Hamazazpikotan

Irakaskuntza alorretik kanpo, Euskal Herriko idazle askok ere japoniar literaturarekiko miresmena agertu dute azken urteetan, kultura horrek bizi duen zabalkundearen arrimora. Askotxo izan dira haiku poemak euskaraz idatzi dituzten autoreak: Josetxo Azkona ("Ni ez naiz Fujin izan"), Juan Kruz Igerabide ("Begi niniaren poemak"), Karlos Linazasoro ("Hamazazpikotan"), Carmen Valois edota Josu Jimenez Maia bera.

"Euskal poetak errimatu gabeko poesiara jotzen dugu maiz, agian bertsolaritzak duen pisuaren ondorioz, eta horretan, haikua oso artefaktu poetiko bitxia eta interesgarria da», esan du Jimenezek.

Hamazazpi silabako poemak dira haikuak, bost-zazpi-bost egiturarekin, baina neurriaz gainera, badituzte bestelako arauak ere: "Haikuak beti izan behar du naturarekin lotura, eta baita urtaroari erreferentzia egiten dion hitz bat ere, japoniarrek 'kigo' deitzen diotena. Hori guztia kontuan izan behar da haiku bat idazterakoan», azaldu digu idazle nafarrak. "Garrantzitsuena, alta, unean bertan sentitzen duzuna transmititzea da. Berehala iragaten den sentimendu hori nolabait islatu behar da haikuan».

Idazle guztiek ez dituzte bete-betean errespetatzen haikuaren arau guztiak, baina bilduma gogoangarriak eskaini dizkigute azken urteetan (iaz argitaratu ziren Linazasoro, Azkona eta Jimenez Maiaren haiku-liburuak, ia aldi berean).

Japoniar kulturaren lagunak

Euskal Herriaren eta Japoniaren arteko harremana ez da, alta, kamishibai antzerkira edo haikuetara mugatzen. Azken urteetan, asko izan dira Ekialde Urruneko herrialde horrekin maitemindu eta bertoko kulturari buruz gehiago jakin nahi izan dutenak, eta prozesu horretan, Yamaguchiko liburutegia, izen bereko parkean, ezinbesteko erreferentzia izan da. Yamaguchi hiria senideturik dago Iruñearekin, eta horren karira, hamaika ekimen egin izan dira liburutegian.

"2002. urte inguruan, Donibane auzoko liburutegia lekuz aldatu eta Yamaguchi parkera eramatea erabaki zuen Iruñeko Udalak. Hori aitzakia hartuta, Japoniako literaturari garrantzia handiagoa ematea erabaki genuen», azaldu digu Nacho Etchegaray liburuzainak. Hasiera batean, nobela bakan batzuk, historia liburuak eta zenbait pelikula besterik ez zituzten bertan, baina funtsa zabaltzen hasi ziren, eta batez ere, kanpoko ekarpenei esker, gaur egun Euskal Herri osoan Japoniako kulturari buruz dagoen bildumarik

aberatsenetakoa osatzea lortu dute. "Liburu mordoa eman zizkiguten hainbat lagunek, besteak beste, Reiko Furuno edota Hitomi Oji berak; baina instituzioetatik ere ekarpen garrantzitsuak jaso ditugu; adibidez, Yamaguchiko Prefekturak eta herri horretako Udalak hainbat lan utzi zizkiguten», azaldu du Etchegarayk.

Apika-apika, Yamaguchi liburutegiaren baitan, japoniar kulturaren alor ezberdinak jorratzeko helburuarekin, hamaika talde eta ekimen sortzen hasi ziren. Japoniar kulturaren zaleen epizentro bihurtu zen egunetik egunera liburutegi iruindarra. Kamishibai ipuin-kontalari saioekin batera, solasaldi-taldea sortu zen, nipondar literatura, zinema, komikigintza eta, oro har, kultur adierazpen guztien inguruan eztabaidatzeko. Ana Muñoz eta Jesus Garcia Salguero dira talde horretako koordinatzaileak, eta astero-astero, saio monografikoak antolatzen dituzte, japoniar kulturaren atal konkretu baten gainean: "Ez dugu literaturara soilik mugatu nahi, eta horregatik, gure tertulietan, liburuez hitz egiteaz gain, pelikulak, animeak edo mangak ere jorratzen ditugu», azaldu digu Garcia Salgerok.

2009an, Japoniari buruzko Jardunaldien lehen edizioa antolatu zuen Yamaguchi liburutegiak. "Hiru eguneko ekimena zen, eta batez ere, japoniar literatura izan genuen ardatz. Liburutegiaren funts guztiak biltegitik atera eta, nolabait, kultura hori jendarteratu nahi izan genuen. Arrakasta itzela izan zuen, jende andana hurbildu baitzen, eta horri esker, 2010ean bigarren edizioa egin ahal izan genuen [japoniar zinema protagonista izan zen bigarren aldi horretan]. Jardunaldien bi edizioetan, kolaborazio bereziak izan genituen. Loradenda baten jabeak, adibidez, ikebana teknika erabiliz, liburutegi osoa lorez apaindu zuen eta beste neska batek japoniar estiloko panpinak egin zituen. Oso polita izan zen», esan du Etchegarayk.

Jardunaldi horiek izandako arrakastari esker, haiku talde bat ere antolatu zuten liburutegian. "Haiku poesia japoniarraren boom bat bizi dugu literatura zaleen artean. Liburutegira jende mordoa etortzen da, halako poemak idatzi eta irakurtzeko», nabarmendu du liburuazainak berak.

Oro har, Yamaguchin sortutakoa "nipondar kulturaren oasi» bat da Nafarroan eta Euskal Herrian, Etchegarayren esanetan. "Estatu frantsesean, adibidez, japoniar literaturarekiko zaletasun handia dago, eta itzulpen asko argitaratzen dira urtero. Hemen ez dugu halako egoerarik bizi, baina fenomeno hedatzen ari da pixkanaka, eta gero eta idazle nafar gehiago animatzen dira haikuak idaztera». Liburutegiak japoniar kulturaren zaleen bilgune eta oasi izaten jarrai dezan, alta, baliabide ekonomikoak behar dira, eta hain zuzen, hori da Yamaguchiren zabalkundea muga dezakeen faktore bakarra: "Urtero, japoniar autoreen lanak erosten saiatzen gara, eta Iruñeko Udalari behin eta berriz azpimarratu diogu kultura honen garrantzia. Izan ere, Iruñea eta Yamaguchi hirien arteko senidetzea ez litzateke hitzetara eta ekitaldi instituzionaletara mugatu behar. Guk benetako senidetze bat proposatzen dugu, baina horretarako, inbertsioak egitea ezinbestekoa da, eta Udala ez dirudi horretarako prest dagoenik. Are gehiago, iazko urriaz geroztik, liburutegiek ez dugu zentimo bakar bat ere ikusi, aurrekontuetan ez baitago guretzako partidarik. Egoera honetan, zaila izanen da literatura japoniarra sustatzea. Ez japoniarra, ezta beste inongoa ere».